



## IV. Aiztondo Txirrindularitza Klasikoa Oscar Puyolek irabazi du

**MIKEL NIEVE** ▶ Leizarra laugarren izan zen sailkapenean, Zanbrano eta Aramendiaren atzetik

**ESTRATEGIA** ▶ «Ihes egin nuen hasieratik sprint-ean ni baino hobeak ariko zirela banekielako», dio ▶ 4



Lehen hiru sailkatuak: Oscar Puyolek (erdian), Zanbrano (ezkerrean), Iker Aramendia. N. LIZARTIA



**ROSA ARREGI** ▶ EBEL-EKO KIDEA

«Elkarrekin egoera aldatzea errazagoa da»

Billabonatarrak igandean eginiko batzar nagusiari buruz jardun du ▶ 5

**KEPA MENDIZABAL** ▶ TOLOSAKO ENTRENATZAILEA

«Denen artean aurrera egin behar dugu, unerik txarrean egon arren»

18. postuan dago Tolosa CF, EHUren aurka galdu ondoren ▶ 3

**TOLOSA** ▶

## 223 aparkaleku berri egingo dituzte Rondilla kalean

Atzo jarri zuten udal ordezkariak lehen harria lanen hasiera iragarritz ▶ 2

## AZPIEGITURAK ▶

# 223 aparkaleku berri egingo dituzte

Sinbolo gisa atzo jarri zuten lehen harria; Arkaitza enpresa arduratuko da lanetaz eta 14 hilabeteko epea du egiteko

## ESTI EZEIZA

Rondilla kaleko luzapeneko garaieetako lehen harria ipini zuten atzo inguruko bizilagunek eta Udaleko ordezkariak. Sinbolo gisa, atzo argitaratutako egunkari baten alea sartu zuten kaxa batean, eta hau, lurperatu egin zuten.

Jokin Bildarratz alkateak ekitaldian agertu zuen bezala, «Tolosan, aparkalekuen behar handiena duen inguru da hau», eta proiektu honen arabera, 223 autorentzako aparkaleku egingo dute bertan. Arkaitza enpresa arduratuko da lanetaz, eta 14 hilabetetako epean burutu beharko ditu. Bildarratzek atzo azaldu zuenez, «proiektu zaharra da hau, eta herritarren presioak nahiz zinegotzi batzuenak ahalbidetu du hau aurrera egitea». Izan ere, askotan atera da lehiaketara egitasmo hau, baina arrazoi ezberdinengatik, orain arte ezin izan da aurrera eraman.

## Aparkalekuen proiektua

Hasierako proiektuaren arabera, 170 plaza egin behar baziren ere, azkenik 223 eraikiko dituzte. Horietatik 105 lehen-dabiziko solairuan izango dira, eta forma errotatiboa funtzionatuko dute. Gainontzeko 118ek kontzesio administrati-



Proiektuko arkitektoa honen inguruko azalpenak ematen. E. EZEIZA



Proiektuaren planoak. HITZA

## ZENBAIT DATU ▶

**Aparkaleku kopurua.** 223. **Solairuak.** Bi.

**1. solairua.** 105 plaza.

**2. solairua.** 118 plaza.

**Eraikitzeko denbora.**

14 hilabete.

**Enpresa.** Arkaitza.

boa izango dute, eta 15.000 euro balioko dute. Proiektu honen aurrekontua 3.000 eurokoa da.

Lanei hasiera eman diete dagoeneko, eta apirilaren amaierarako, Rondilla kalearen amaieran dagoen etxebizitza bota egingo dute. Egitasmoaren arabera, kaleari jarraipen bat emanez, beste etxebizitza bat eraikiko dute bertan. Gisa horretan, Rondilla Belateraino luzatuko dute. Bestalde, aparkalekuen gainean plaza bat jango da, zuhaitz eta berdegune batzuekin. Honekin, zonaldearen kanpoko itxura «zaindu» nahi dute.

## KULTURA ▶

## Kale agerraldi umoretsua, gaur arratsaldean

Gaur arratsaldean, 17:30etik aurrera, Kunka antzerki taldeko hiru aktorek Tolosako Triangulo plazan hasita, herriko bazter guztiak zeharkatuko dituen kale agerraldi umoretsua eskainiko dute. Bestalde, aktore berdinek, ostiralean *Meando fuera del tiesto* antzezlan aurkeztuko dute Leidor antzokian, ilunetako zortzietan.

## GIZARTEA ▶

## Correos ordu gehiagoz egongo da zabalik

Nafarroa etorbidea 6an kokatuta dagoen Correos-eko bulegoak ordutegiz aldatu du. Hemendik aurrera ordu gehiagotan egongo da zabalik jendearentzako. Asteleheneetik ostiralera hamabi orduz egongo da irekita bulegoa, 08:30etik 20:30era. Larunbatetan berriz, goizetan bakarrik, 09:30etik 13:00era.

## GIZARTEA ▶



## Laskoraingoak sari batekin itzuli dira Lilatoiatik

**Erredakzioa** ▶ Igandean, Donostian XVIII. Lilatoia ospatu zen. Hau, martxoaren 8aren inguruan antolatzen den ekimenetako bat da. Lasterketa honek, emakumeen artean kirola sustatzea du helburu. Hala, Laskorain Ikastolako ikasle, ikasle ohi eta irakasle batzuk bertan izan ziren, proban parte hartuaz. Lasterkariak azaladutakoaren arabera, goiza giro ederrean pasatzeaz gain, junior partaide gehien izateagatik saria jaso zuten. HITZA

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Fax: 943 65 09 44  
e-mail: ennio@innoservicio.com  
www.innoservicio.com

**Amezket.** 90m<sup>2</sup>ko sartzeko moduan dagoen etxebizitza. 3 logela eta 2 bainugela.

**Anoeta.** Duela gubiko eraikuntzan duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. **Oso egoera onean.**

**Anoeta.** Solkorre. 86 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **Distribuzio ona.**

**Amezket, Berastegi, Tolosa eta Zizurkil.** Hainbat etxe bifamiliar eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

**Belauntza.** Etxe bifamiliarra salgai. Rustiko erara jarria. Ezin hobeto. 500m<sup>2</sup>ko lorategiarekin.

**Berrobi.** Guztiz berriua. 90 m<sup>2</sup>.

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

**3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.**

Bizitzera sartzeko moduan.

**Berokuntzarekin.**

**Ibarra.** Plaza inguruan. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugelarekin; dena kanpoaldera.

**180.300 euro.**

**Legorreta.** Trasteleku salmentan.

**Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.**

**Villabona.** Kale berria. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.

**Igogailuarekin. Guztiz berriua eta jantzia. 288.500 euro.**

**Villabona.** Larrea. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.

**Altua igogailuarekin. Guztiz berriua eta jantzia. 288.500 euro.**

**Zizurkil.** Etxe abikia salgai.

**Terrazarekin eta lorategiarekin. Ezin hobeto. Orientazio bikainarekin.**

**Tolosa.** Sputniks. Duplexa salgai.

**Berrituta eta berokuntzarekin. Altua, igogailuarekin.**

**Tolosa.** Agintari. Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela. Kanpoaldera eta argitsuak. 186.315 euro.

**Tolosa.** San Esteban. Pisu altua igogailuarekin salgai. Kapribura berriua.

**Tolosa.** Nafarroako ibilbidea. 3 logela eta 2 bainugelako pisua salgai.

**Berrituta. Berokuntza eta igogailuarekin.**

**Tolosa.** Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. 228.384 euro.

**Tolosa.** Beotibar. 36 m<sup>2</sup>. Altua, 150.000 euro.

**Tolosa.** Amarotz. 3 logela, trasteleku eta berokuntzarekin. Pisu ederra salgai. **Berrituta.**

**Tolosa.** Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. **Garajeekin.**

**Tolosa.** Zumalakarregi. 98 m<sup>2</sup>ko pisu zoragarria salgai. Ikuspegi ezin

hobeak. **Estreinatzeko. Garajea aukeran.**

**Tolosa.** Zumalakarregi. 92 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berriua eta estreinatzeko. **Garajearekin.**

**Tolosa.** Pedro de Tolosa. 83 m<sup>2</sup>. 125 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. **Garajea aukeran.**

**Tolosa.** Kondeaneko aldapa. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **Igogailuarekin.**

**Tolosa.** San Frantzisko. 50 m<sup>2</sup>ko apartamentu berriua salgai. **Igogailu, berokuntza eta garajearekin.**

**Tolosa.** Pedro de Tolosa. **Oso ona. Garajea aukeran.**

**Tolosa.** SAM. Iskineko etxe atxikia salgai. **Portxe eta guzti dauka.**

KEPA MENDIZABAL ▶ TOLOSA CF-KO ENTRENATZAILEA

# «Unerik txarrenean egon arren, denen artean aurrera egin behar dugu»

**EHU taldearen aurka jokatu du azken partida Tolosa CFk eta 1-0 galdu du; 18. postuan daude sailkapenean, eta atzetik ditu San Ignacio eta EHU**

IÑIGO TERRADILLOS

Ez dago bere unerik onenean Tolosa CF. Azken partidetan ez dute garaipena ikusi, eta ondorioz, 18. postuan daude sailkapenean, 23 punturekin. Beraien atzetik, San Ignacio 21 punturekin eta EHU 19 punturekin daude. Kepa Mendizabal entrenatzaile tolosarrak taldeak «kolpe handiak» hartu dituela, baina «aurrera egin beharra» dagoela esan du.

**Une txarrak ari zarete igarotzen.**

Txarrak ez, unerik txarrenean gaudela esango nuke.

**Azken partidetan, batez ere, kolpe handiak hartu dituzue.**

Azken partida, larunbat hone-

tan, EHUren aurka jokatu genuen, eta 87. minutuan sartu ziguten garaipenaren gola, hau da, 1 eta Oekoa. Aurrekoa, berriz, etxean jokatu genuen, eta 90. minutuan sartu ziguten aurkariak 1-2koa. Zortea ez dugu aldeko izan, baina ezin da esan dena zorte txarra denik, mailari dagokionez gorabehera handiak izan baititugu.

**Gainera, azken partidako aurkaria, EHU azken postuan dago.**

Bai. 87. minutuan gola sartzeaz gain, horrek ere min handia egiten du. Azken bi partidak irabazi egin ditu talde honek eta puntu horientatik gorantz begiratzeok aukera dute orain.

**Nola egin aurre egoerari?**



E. EZEIZA

Taldeakide guztien artean aurrera egin behar dugu. Egoera oso txarrean egonda ere, ez dugu etsi behar.

**Mallaz jeltzeko aukera ere hor dago.**

Jeistearekin gerta liteke hurrengo urtean berriro ere igotzea, edota 8 urte beranduago igotzea. Dena den, ez dugu horretan pentsatu behar une honetan.

**Hurrengo partida Laudoren aurka.**

Borrokatu egin behar dugu. Nire ustetan agresibitate apur bat gehiago falta zaigu jokatzekoan.

**Afitzioari zer esango zenioke une latz hauetan?**

Taldea animatu dezatela. Jokalariak kobratu ere egin gabe ahal dutena egiten dute, eta zaleen babesa behar dutela iruditzen zait.

XAKEA ▶

## Amaitu da Eskualdeko Xake Txapelketa



Igandeko une bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Igandean Tolosaldeko Eskualdeko Txapelketako azken saioa jokatu zuten Tolosako Kultur Etxean. Sailkapenari begira, infantiletan Aimar Intxaurren (Orixe-Tolosa) izan da txapelduna, Aitor Alkorta (Jesusen Bihotza-Villabona) bigarrena, eta Oihana Etxenike (Anoetako Ikastola) hirugarrena. Alebinetan, Aitor Villenak (Jesusen Bihotza) lortu du urrezko domina, Mikel Muguruzak (Peio Errota-Asteasu) zilarrezkoa, eta Eneko Maizek (Jesusen Bihotza) brontzezkoa. Benjaminetan podioa Danel Intxaurren (Samaniego-Tolosa), Eloy Iglesias (Hirukide-Tolosa) eta Unai Mendizabalek (San Juan-Alegia) osatu dute. Nesketan, Ione Mujika (Samaniego), Ane Salbarredi (Muñagorri-Berastegi) eta Oihana Ugartemendiak (Muñagorri) osatu dute podioa.

Bestalde, larunbatean Gipuzkoako ligako beste txanda bat jokatu zen. Gorengo mailan Tolosa-Ibarra A taldeak 1,5-2,5 galdu zuen Donostiako Fortunaren aurka. S. Etxeberria eta M.M. Barojak lortu zituzten taldeko puntuak. Hirugarren mailan Tolosa-Ibarra B taldeko A. Intxaurren lortu zuen Donostiako Gros taldearen aurka.

VILLABONA ▶ PING-PONG

## Hirugarren garaipena Olaederra taldekoentzat Ping-Pong Txapelketan

**Hurrengo jardunaldia Olaederra kiroldegian izango dute, larunbatean, 16:30ean**

ERREDAKZIOA

Autonomien arteko Ping-Pong Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zuten herengun, eta Villabonako Olaederra taldekoek garaipen berri bat lortu zuten, hirugarrena jarraian.

Hain zuzen ere, Kraft AT. Lasartekoan kaxtxan lortu zuten

garaipena billabonatarrek. Ezin esan erraza izan zutenik, izan ere, Lasartekoan taldean lehenengo mailan lehiatzen ari den Ruiz jokalaria dute, eta hau beste jokalarien ondoan oso goitik dago. Beraz, «puntuak beste aurkarien aurka lortzea» izan zen Villabonako helburua. Txema Armentia hasi zen garaipenekin, 3 eta 0



Olaederrako Iker Mugerza, Txema Armentia eta Mikel Martin, eta Kraft AT. Lasarteko I.Ramos, I.Ruiz eta G.Garcia. HITZA

irabazi zuen Ramosen aurka. Asteasuarrak bere ohiko jokua eginez erraz garaitu zuen. Iker Mugerzak 3 eta 2 irabazi zuen. Mikel Martinek ezin izan zuen Ruizen aurka, eta 3-1ekoarekin konformatu zen. Binaka, Mikel

eta Ikerrek ere ezin izan zuten irabazi. Hurrengo bi banakakok irabazi zituzten, beraz, jardunaldia ere eskuratu zuten Olaederrakoek. Hurrengo jardunaldia Villabonan izango da, Olaederran 16:30ean.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK**

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da**

**HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

## IKAZTEGIETA ▶ PISTA TXIRRINDULARITZA

## Olaberriak lau domina lortu ditu Espainiakoan

Ainhoa Pagolak zilarrezko bi eskuratu zituen

## N. URBIZU

Leire Olaberriak Mallorkako (Herrialde Katalanak) belodromo berrian burututako Espainiako Txapelketan lau domina irabazi zituen pasa den asteburuan, Euskadiko selekzioarekin. Urrezko hiru; keirin, jazarpena eta scratch-en, eta zilarrezko bat puntuazioan.

Olaberria izan da Espainiako Txapelketan domina gehien eskuratu dituenak. Ikaztegietak «oso maila ona» erakutsi du beste behin, eta prestatzaileen hitzetan, «bere aurreratzea gorantz doa oraindik, eta Mallorkan jokatuko diren mundialetan orain arte erakutsitakoa egitea espero dugu».

Ainhoa Pagola tolosarra ere han izan zen, eta bertan bi zilarrezko domina eskuratu zituen, abiadurakoan eta 500



Leire Olaberria Keirineko podiumean. HITZA

metrotan, hain zuzen. Zorte txarra izan zuen keirineko finalean, faboritoen artean zegoen eta erori egin baitzen.

Hala ere, beste behin, eskualdekoek maila ona erakutsi dute pistako probetan.

## TXIRRINDULARITZA ▶



Oscar Puyol, Zizurkil Goiango helmuga igarotzen lehena izan zen. NEREA LIZARTZA

## Aiztondo Klasikoan, Oscar Puyol garaile

Mikel Nieve leitzarrak laugarren egin zuen berriz ere, beste euskaldun baten atzetik, eta lasterketa ona egin ondoren

## ALEGIA ▶

## San Juaneko ezinduen eguna antolatu dute

Gaur, Alegiko San Juan eskolan ezinduen eguna antolatu dute. Lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako dago zuzendua. 09:00etan hasiko dira, eta frontoian ezinduek dituzten oztipoak eskolako haurrek sentituko dituzte. Arratsaldean, Kultur Etxean bideo emanaldia eta hitzaldi interesgarri bat izango dute.

## EUSKARA ▶

## Zizurkilen eta Alegian, Bai Euskarariri buruz

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bi aurkezpen ekitaldi izango dira, gaur Zizurkilgo Kultur Etxean 20:00etan, eta hurrengo, etzi, Alegiko udal-txean. Bileren helburua Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutaraztea da: bere helburuak, balioa, eta abar. «Tolosaldetan 69 ziurtagiridun» daude jada. Bilera irekia da.

## NEREA URBIZU

Aiztondo Klasikoa Zizurkilen bukatu zen: helmuga igarotzen aurrenekoa, berriz, Oscar Pujol valladolidtarra (Espainia) izan zen. Lasterketa azkarra izan zen; izan ere, 143 kilometroak 3 ordu eta 35 minututan egin zituen lehenengoak.

Haren ondoren, Gonzalo Zanbrano iritsi zen, eta handik 12 segundotara, Iker Aramendia eta Mikel Nieve leitzarra helmugaratu ziren. 25 txirrin-

dulariko talde bat aurreratu egin zen lasterketaren lehenengo boretan: honetan Nieve zegoen, baina 98. kilometroan berriz ere pelotoi handia atzean zen. Alkizara igotzen hasi zirenean berriz ere seiko talde bat aurreratu egin zen: artean irabazlea eta leitzarra ere ziren. Adunara igotzen sailkapen nagusiko biak izan ziren, atetik bi nafarrak zetozelarik.

Antolatzaileek Mikel Nieve-ren lana azpimarratu zuten, iaz ere 4. egin baitzuen proban.

## SAILKAPENA ▶

AIZTONDO KLASIKOA  
Sailkapen nagusia.

Izena	Denbora
1. Oscar Puyol (Azpiru)	3.35.53
2. G. Zanbrano (Fuenlabrada)	3.35.54
3. Iker Aramendia (Lizarte)	3.36.06
4. Mikel Nieve (Caja Rural)	3.36.06
5. L. A. Romero (Cafemax)	3.36.06

## Mendiko saria.

Izena	Puntuak
1. G. Zanbrano	18 puntu

## MIKEL NIEVE ▶ TXIRRINDULARIA

## «Ihes egin nuen aurretik, banekielako sprint-ean hobeagoak ibiliko zirela»

Mikel Nievek (Leitza, 1984) aurten ere 4. egin du Aiztondo Klasikoan. Caja Rural taldean dabil momentuz, eta Aiztondoko probaz hitz egin du.

## Aurten ere laugarren: kasualitatea?

Bai, kasualitatea. Bi urtetan laugarren baina ibilbidea desberdina izan da. Iaz bezala aurten ere oso gustura ibili naiz.

## Ze iruditu zaizu Aiztondoko proba?

Oso gogorra, gainera maila altua dago. Bukaeran zortea izan nuen: 25 txirrundulari gindozen, eta bostek ihes egin genuen.



HITZA

## Zorte kontua baino, estrategia, ez?

Bai... Ihes egin nuen aurretik, banekielako bukaeran sprinta egiteko garaian hobeagoak ibiliko zirela.

## Espainiako Koparako balio-garria da.

Bai, baina aurreko bi lasterketetan ez nuen zorte onik izan: batean bi kilometro falta zirela gurpila zulatu nuen, eta bigarren proban, berriz, erori egin nintzen.

## Harritu egin zaitu garaileak?

Ez gehiegi: ongi ibili zen, eta gainera, faboritoen artean zeuden Puyol eta Zanbrano. ◀



Pertsonak hezte  
eta osatze  
gure erronka

## JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

— 2-16 urte bitarteko hezkuntza —  
Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza • Kalitatezko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)  
943 69 20 58 (Txermin auzo • Villabona)  
943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)

billabona@ikastola.net



ROSA ARREGI ▶ EBEL-EKO KIDEA

# «Elkarrekin buelta errazago eman diezaiokegu egoerari»

Rosa Arregi EBELeko Tolosaldeko ordezkarietako bat da; igandean egin zuten batzar nagusia emakume baserritarrek

IMANOL GARCIA

Emakume Baserritarren Elkar-teak (EBEL) aurtengo batzar nagusia egin zuen herenegun Villabonan. Amasako Agaitz-Berri baserriko Rosa Arregi (Villabona, 1967) da elkarteko Tolosaldeko ordezkarietako bat.

## Zer ondorio atera ziren egin berri duzuen batzarrean?

Azken urteetako errepasoa egin ondoren, hiru gaien inguruan aritu ginen: gizarte segurantzak, kotitularitatea eta gizarte zerbitzuak. Orain hiru gai horiek jorratu behar ditugu.

## Zer eskatzen duzue gai bakoltean?

Gizarte Segurantzaren berrikuntza batzuk egin behar dira eta hori ikusi behar dugu gu nola gauden. Bestalde, baserrien jabetza orokorrean gizezkoen izenean dago eta hori aldatu beharra dago. Gizarte zerbitzuei dagokionez, adineko pertsona ugari bizi dira baserrietan eta horiek behar dituzten zerbitzuak nola bermatu behar diren aurreikusitu behar da.

## Emakume baserritarrek elkartzeko beharra ikusten duzu?

Baserriko lana gogorra da. Goizeko seitan jaiki eta hamabi orduz aritzen gara. Guk behi esneak ditugu eta neguan zer-bait lasaiago aritzen gara eta eguraldi onarekin lana areagotu egiten da. Lana gogorra izateaz gain, emakume baserritarroi ez gaituzte aintzat hartzen gizartearen. Elkarren artean bilduta errazago eman diezaiokegu buelta egoera horri.

## Baserrian ere etxeko lanak izaten dira... Banatzen dira lan horiek?

Nire kasuan bien artean eramanen ditugu, baina orokorrean gehiena bustitzen dena



I. GARCIA

emakumea izaten da. Egungo senar-emazte gazteek gehiago banatzen dituzte etxeko lanak. Ez dirudi baserriak etorkizun erraza duenik. Orain diru laguntza gutxiago daude. Bizitza gora doa eta ba-

serriko prezioak, berriz, ez. Bestalde, gustatu egin behar zaizu lan hau. Gero eta gazte gutxiago daude baserrietan eta hemendik animatu nahi diot jende gazteari baserrian lan egitera.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA



Olaizola ikasleekin izandako solasaldiaren une batean. HITZA

## Alaitz Olaizola antzerkigilea Otañon

Alaitz Olaizola antzerkigilea izan zen atzo Zizurkilgo Otaño eskolan. *Denboraren makina* antzerkiaren zati txiki bat antzeztu zien ikasleei eta «izugarri ongi» pasa dutela adierazi zuten. «Antzezlana oso polita eta interesgarria iruditu zaigu», azaldu dute irakasleek. Ikasleek galderak prestatu zituzten, gero irrati saio batean el-karrizketa jartzeko. LH1eko ikasleak prestatzen ari diren antzezlaren zatitxo bat eskaini zuten eta Olaizolak lana ongi burutu ahal izateko trukotxo batzuk eman zizkien.

ADUNA ▶

## Afaria Uztartzan Emakumearen Eguna dela eta

Larunbat honetan, etzi Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, afaria antolatu dute Uztartzan —eta ez Urritzan, hasiera batean zabaldu zenaren arabera—. Izena eman nahi duenak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatearen bulegoetan edo 943 693930 zenbakian egin dezake.

ANOETA ▶

## Alkartasunak bidaia antolatu du Bilbora

Alkartasunak bidaia antolatu du Bilbora hilaren 28rako. Diputazioaren jauregia eta Arte Ederretako museoa ikusiko dituzte goizean. Montenegro jatetxean bazkalduta ondoren, Artxandara joango dira eta agian Abando-Ibarrako pasealekura. Izena bil-tokia eman daiteke.



gure etxean  
euskara  
gure etxean  
berria

### Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabiltzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburak, diskoak eta abar merkeago.

## Orain eskaintza berezia

Otsailaren 28a baino lehen harpidetu\* gero,

## oparia zuretzat

### 2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA

zuek aukeratzen duzun  
hauetako sagardotegi batean

GIPUZKOA

**LARRE GAIN**

☎ 943 555 846  
HERNANI

GIPUZKOA

**OTSUA-ENEA**

☎ 943 556 894  
HERNANI

BEHARA

**IBARRA**

☎ 946 731 100  
ZORNOTZA

ARABA

**ITURRIETA**

☎ 945 445 385  
ARABO

NAFARRA

**MARTITXONEA**

☎ 948 604 607  
ALDIZ

Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

\* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

## IBARRA ▶

Lauburu  
Ibarrak 5-2  
erraztasunez  
irabazi zuen

A. IMAZ

Lauburu K.E. Ibarra areto futbol taldeko Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak zabalduko oharren arabera, Ibarrak «erraz gainditu zen Muriedas talde kantabriarra». Azken emaitza 5-2koa izan zen eta baja ugariaren ondorioz, Ion Garmendia eta Iñigo Arrospe jubenilek minutu batzuk izan zituzten. Goleatzailei dago kienez, Unai Labakak 3 gol sartu zituen, beste biak berriz, David Prados eta Lander Kamiok lortu zituzten.

Bestalde, jubenil nazionalak denboraldia 2. amaitu zuen, azken partidua 1-9 irabazi eta gero Artaromoren aurka. Kadete mailan berriz, Uzturpekoek Anoetako Ikastola garaitu zuten 5-6ko emaitzaz.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
- Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
- ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

## Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramedien egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

## XABIER KINTANA ▶ TXOMIN JAKAKORTEXARENAREN BIOGRAFIAREN IDAZLEA

ASIER IMAZ

*Bidegileak* biografia bildumak argitaratu duen azken liburuetako batean, berastegiaren baten bizitza da aztergai. Xabier Kintanak, liburuaren egileak aitortu duenez, «egun batean bakarrik egon ginen aurrez aurre», baina hasiera batean artikulu bat idazteko elkarrizketa zen hartatik, «laguntasun berezi» bat sortu omen zen elkarren artean. Berastegiaren erlekuek ezta sortzen zuten bezala, Xabier Kintanaren eskuek Txomin Jakakortexarenaren biografia liburu sortu dute.

**Txomin 1906an jalo zen Berastegin.**

Bai, horrela da. Berastegiko burges txiki jatorriko familia batetako zen. Ama irakurle eta literatura zalea zuen, aita berriz ikasia eta bidaiaria, munduko txoko ezberdinetatik ibilia. Bi anai ere bazituen, bat seminarioan hil zitzaion eta bestea berriz, Juan, piano-jolea. Txominek ikasketak egiteko aukera izan zuen inguruko gutxi bezala, horregatik kultura aldetik-eta jantzia zen. Andoain hasieran eta gero Gasteizen seminarioan ikasi zuen, Joxe Miel Barandiaran eta Manuel Lekuona irakasle izan zituen eta euskal giro politoan ikasi zuen. Beste batzuek espainolismora egiten zuten bitartean, hauek euskal kezka edo euskal zaletasuna azpimarratzen zuten.

**Txikitatik apaiz bideari lotuta.** Bai, baina kontuan eduki behar da garai haietan, etxean apaiza bat edo monja bat izatea etxerako gauza ona zela.

**Poeta eta pilotazalea ere bazen gainera.**

1932. urtean *Euzko Oleriti Egun* irabazi zuen eta olerki liburuak ere utzi dizkigu. Lauaxeta, Lizardi eta horrelako jendearekin ere ibiltzen zen. Horretaz gain, pelotazale amorratua ere bazen bai, txikitatik. Erbestera, Argentinara joan zenean apezpikuarekin batera beste herriko batzuen aurka ibili zen pilotan, garaile irten ziren gainera.

**Gerra Zibilak non harrapatu zuen?**

Gerra azaldu zenean, Nafarraren zegoen, Araba iparraldeko herrixka euskaldun batean. Arabatik gora laister egin zuten faxistek, hortik ihes egin zuen boluntario bezala eusko gudarien artean egoteko. Kapelara bezala joan zen frontera. **Zergatik erbesterratu beharra izan zuen?**

Frankok abertzale eta apaiz euskaldun nahiz katalanekin egin zuena ikusirik, Aitzol eta beste asko garbitu egin zituen, argien bistan zegoen hiltzeko ariskua handia zeukala Txominek. Abertzale izatea eta

## «Hiriko parrokian bulegari lanak baino baso eta baserri giroa nahiago zuen»

Erlauntzen bidez herri xehe baten patua aldatu zuen  
40 urtetan zehar Argentinan igarotako erbestean

LUIS JAUREGIALTZI / ARGAZKI PRESS

apaiza, merezimendu bikoitza zen garbitu izateko. Franko apaiz eskuindar eta berarekin konforme zeuden apaizen aldekoa zen, baina Kataluina eta batez ere Euskal Herriko apaizek desmontatu egiten zioten mundu aurrean berak eraiki nahi zuen teoria, alegia, hura gurutzada bat izan zela, bere taldea, onen taldea zela komunista gaiztoen kontra, baina komunisten taldean apaizak bazenuden, hau da erlijioa ukatzen ez zutenak, bere gurutzada hori ezerezean gelditzen zen eta horregatik zien horrelako gorroto berezia euskaldunei eta katalenei, beraiekin bat ez zetoztelako.

**Lehenik iparraldera eta gero Argentinara.**

Donaixtin Sabino Aranaren hezten zegoen, Araba iparraldeko zirenez, jeltzale asko zegoen bertan. Lehenik hara joan zen eta gero itsasontziz, Argentinara. Bertan apaizpikoari esan zion jatorriz euskalduna zela eta basoa eta baserria gustatzen zitzaizkiola, ez zuela bulegari moduan egon nahi hiri batego parrokian. Apaizpikuak erantzun zion hango giroa oso behartsua zela eta ez zela berek Euskal Herriaren bizitakoa bezalakoa. Horrela joan zen Mones Cazon herrixkara. Heldu eta apaizpikuak arrazoia

Eliza berri bat, biltzeko lekuak, korua antolatuta, frontoia ipini, lorategiak... Herri osoaren puzerako egin zituen. Baina egun batean, kasualitatez erleak aurkitu zituen zuhaitz baten. Orduan liburuak biltzen hasi zen hauen inguruan ikasteko. Argentinako klimagatik erleak askoz ere emankorragoak dira, nahiz eta kalitatea ez izan hain ona. Hemen urtean 15-20 kilo izugarri da, baina han 80 kilo eman ditzake, urte batean ondo zainduta, 200 kilo eman omen zizkion erlauntza batek. Bera patxadaz hasi zen, dirua irabazi ahala, parte bat erlauntza erosteko inbertitzen zuen. Gero ofizioa irakatsi zion bertako arotz bati, gauzak ondo ziozatenek mutikoekin ere berdintzen egiten zuen. Gurasoak konturatu zirenean ohiko ganaduakin baino gehiago irabazten zutela erleekin zaletzen hasi ziren, Euskal Herrira itzuli zenean, 20.000 erle eta 4 erlazain elkarte utzi zituen. Nazio arteko sariak ere irabazi zituzten, aberaspide izugarria utzi zuen beraz.

**Euskal kultura eta argentinarraren arteko zubiak ere zabaldu zituen.**

Han zegoela apaiz euskaldun eta abertzaleekin egoten saiatzen zen, frankismoak zabaldu-tako euskal apaiz exiliatuaren aurkako kanpainari aurre egiteko. Poemak ere idazten zituen aldizkarietan parte hartuaz. Garrantzitsuen ordea, *Martin Fierro* poema nazionala euskaratzea izan zen. Jose Hernandezen poema bertsoetan itzuli zuen, *Martin Burdin* izena emanaz. Omenaldi bat egin zion bera hartu zuen Argentinara eta panpari.

**Noiz itzuli zen etxera?**

1993an itzuli zen Berastegira. Mojen etxe bat utzi zioten, Setien eskerrak ematen zizkion horregatik. Ekarki zen dirua euskal liburuak publikatzen erabili zuen. Erleen inguruan, euskaldunen RHaren inguruan, baina ez zuen arrazismo asmoekin idazten. Bere herriaren ezaugarri propioengatik egiten zuen, bere garaiaren ezaugarri fisikoei garrantzi handia ematen baitzitzaion.

## ERBESTEA

«Euskalduna eta apaiza izatea merezimendu doblea zen garbitu izateko, ihes egin beharra izan zuen»

## ERLEAK

«Hutsetik hasi eta 20.000 erle eta lau erle elkarte utzi zituen Euskal Herrira itzuli zenean»

zuela konturatu zen, inoiz ez baitzuen horrelako pobrezia-rik ikusi. Hala eta guztiz ere ez zen sekula kezatu. Bere baitan han garatu zuen apaiz langilea sena; jendea elizara gerturatzeko, mezak ematen baina batez ere herriaren bizimodua altxatzen. Kaleak eta errepideak asfaltatu, ura ekarriaz, eta orohar herriarentzat aurrerapenak ekarriaz. Oso gaizki ikusia zegoen garaiko agintariengandik lan hori apaiza batek egitea. Berak ere, gorrotoa edo ikusi ezina zuen garaiko peronismoaren aurka, hitz politikak esan arren oso gauza gutxi egiten zutelako.

**Erleekin noiz hasi zen?**

## LEITZA ▶ PILOTA



Bengoetxea VI.a, Errastiren profesional mailako azken partidan. E. EZEIZA

# Bengoetxea eta Ruizen parte-hartzea, medikuen esku

Aste honetan zehar erabakiko dute Bengoetxea VI.aren sorbalda eta Ruizen eskua jokatzeko moduan dauden

## NAIARA GARZIA

Larunbateko norgehiagokan Bengoetxea VI.ak eta Patxi Ruizek min hartu eta gero, oraindik ez dago argi asteburu honetako partida jokatu duten edo ez. Honetaz gain, larunbateko partida galdu arren oraindik finalera pasatzeko zituzten aukerak bertan behera gelditu ziren igandean Belokik eta Olaizola I.ak Xala eta Eulateren aurka galdu ondoren.

Bengoetxea VI.ak partida hasi eta berehala, 3-5 zihozte-la, kolpea hartu zuen sorbaldan. «Nahiko kolpe gogorra hartu nuen. Orain izan naiz medikuan eta ostegunean beste proba bat egingo dut. Orduan ikusiko da jokatu ahaliko duan edo ez». Ruizek ere eskuan min hartu zuen, eta bere egoera ez da argia. «Ez badugu ez batak ez besteak jokatzetik, enpresako beste bi ordeko aritu beharko dira asteburuko norgehiagokan».

Larunbatean Labriten pilotetan leher aritu ziren Gonzalez eta Pascual, eta Bengoetxea VI.a eta Ruizek haien partidarik onena jokatu ez arren, gorriek ez zuten oso erraz irabazi. Bengoetxea VI.ak hartutako kolpearen ondorioz beldurrez jokatu zuen eta hau gutxi ba-

liz, Ruizek ez zuen bere maila eskaini. Lizarrakoak prentsurrekoan azaldu zuen bezalaxe, hirugarren tantoan pilota sartu egin zitzaion eta hortik aurrera ezin izan zuen behar bezala jo.

Hala ere, Gonzalez eta Pascualek gorriak ikusi zituen irabazteko, eta bikote urdinak 19 tanto lortu zituen, bertara hurbildu zirenak zur eta lur utziz, arazo fisikoak alde batetara utziz garaipenak gutxigatik ihes egin baitzien Bengoetxea eta Ruizi. Leitzarraren ustez, «azkenean lana eman genien. Haiek ere opari dezente egin zituzten eta urduri zeudenez, huts egiteak egin zituzten».

## Huts egite ugari

Norgehiagokak 77 minututako iraupena izan zuen eta pilototan Gonzalez eta Pascual hobeto aritu ziren arren, huts egite ugari egin zituzten. Pascualek 5 pilota gora bidali zituen eta Gonzalezek, 3. Akatsak akats, partidaren erdialdean markagailua hagitz parekatua egon zen, behin baino gehiagotan, 13-12 zihoztenean, adibidez, edo 17-16. Norgehiagokaren amaieran Aspekoek irabazle izan zitezkeela argiago ikusi zuten. Batez ere, 18-16 zihoz-

tenean, Pascualek jarraian egindako 3 tantoak eta gero lasaitu ederra hartu zuten.

Oparituriko 8 tanto hauez gain, Gonzalez eta Pascualek 4 tanto jarraian egiteko hiru ordu laurden behar izan zituzten.

Amaieran larri ibili ziren 4 pilotariak eta Labritera hurbildu zirenak tanto politak ikusteko aukera izan zuten. Zentzu honetan, Pascualek egindako 3 tantoak azpimarragarriak izan ziren, baita Bengoetxea VI.ak, bukaeran (21-19) egin zituenak ere.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Irudietan.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean ikusgai dira aurtengo Inauterietako irudirik onenak. Zer iruditu zaizkizu aurtengo Inauterietan? Lehena bezain beste imajinario ba al du jendeak? Zer bota duzu faltan eta zer soberan aurtengo Inauterietan? Sartu gure webgunean eta gogoratu zer ikusi zen kalean egun horietan zehar.

## LEITZA ▶ FUTBOLA

## Aurrerak sailkapenean bigarren jarraitzen du

Etxean Ondalaren aurka jokaturiko azkeneko norgehiagoka irabazi egin du

## N. GARZIA

Larunbatean Aurrerak Ondalaren aurka jokaturiko norgehiagokan beste 3 puntu eskuratu zituen. Honela, bigarren jarraitzen du, San Cristobalen atzetik, 3 puntutako tartearrekin.

Ondalaren sailkapenean azkeneko doan taldea da, eta leitzarrak hagitz lasai joan ziren partidara. Atsedena iritsi zenenerako leitzarrek 3 gol sartu zituzten. Aurrerako arduradunek azaldu duten bezala,

«atsedenaldira horrelako emaitzarekin iritsi ondoren erlaxatu egin ginen». Gauzak horrela, aurkariek gol bat sartzea lortu zuten.

Bestalde, otsailaren 18an lehenengo doan taldearen aurka (San Cristobal) jokaturiko partida galdu egin zuten. «Partida oso parekatua izan zen. Amaitzeko 5 minutu falta zirenean irabazten gindoazen, baina akats pare bat egin ginen eta irabazi egin zuten. Hala ere, argi ikusi zen irabazteko aukerak bagenituela».

## LEITZA ▶ BERTSOLARITZA

## Riañorentzat Nafarroako Txapelketa amaitu da

Leitzarrak ez du finalerako sailkatzerik lortu, eta «urduri» zegoela azaldu du

## N. GARZIA

Larunbatean Goizuetan izandako Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalurrekoan Diego Riaño leitzarrak ez du finalerako sailkatzerik lortu.

Riañok azaldu duenez, «egun txarra neukan eta gaizki hasi nintzen, urduri. Gero, saioaren erdialdean-edo esnatu egin nintzen eta nahiko ongi amaitu nuen». Gauzak horrela, larunbatean parte hartu zuten 6 bertsolarietatik 2 izan dira Elizondon eginen den finalerako sailkatu dire-

nak: Jose Juan Etxabe eta Julen Zelaieta. Aurtengo txapelketako mailari dagokionez, hauek izan dira Diego Riañoren hitzak: «Nire ustez maila baxu xamarra izan da, beste urteekin konparatuta behintzat».

Larunbatean hirugarren finalerdia txandaren txanda izanen da. Bertan beste leitzar bat izanen da, Migel Mari Elosegi Luze. Txapelketako hiru finalerdietan sailkatzen diren bertsolari guztiek Elizondon abestu beharko dute, hilaren 24ean, finaleran.

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Autoa.** Renault Express-a salgai SS-AV. ITV-a pasata. 1500 euro. 620 03 67 49.

**Kamioneta.** Volkswagen Transporter-a salgai. 943 65 57 00 - 685 73 68 81.

**Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

## LANA

**Sukaldaria.** Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. 615 78 90 06.

**Tabernaria.** Neska euskalduna

behar da tabernaroko. Astelehenerdik ostiralera, 15:30etik 22:30era, larunbat goizetan lana eta igandean jai. 650 48 79 34.

**Garbiketa.** Sukaldea, jangeletarako, eskolak. 943 44 48 66..

**Gidaria.** Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

## BESTEAK

**Zakurra.** Urtebeteko Cocker arrazako zakurra oparitzen dut. Telefono zenbakia: 645 00 56 83.

**Zakurra.** Cocker marroia desagertu da Belauntzan. Telefono zenbakia: 658 70 43 18.



**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Anoeta.** Aerobik eta batuka saioa izango da umeentzat 18:15etik 19:30era, Kultur Astearen baitan. Bestalde, bihar *Gure gorputzarekin bat egiteko espazioa* tailerra izango da doan kiroldegian 15:00etatik 17:00etara: arnasketak, dinamikak, jolasak, lasaitzeko ariketak... Izen-ematea, kiroldegian bertan. Gaur da azken eguna.

**Ibarra.** Udala Kultur eta Gazteria Batzordeak, San Bartolome jaien antolaketari ekin asmoz, 19:30ean udal batzar aretoan egingo den Festa Batzordearen bilkuran parte hartzeko animatu eta gonbidatu nahi ditu herritar guztiak.

**Tolosa.** Nikaraguako Malpaisillo herriko Xochilt Acal emakume zentroaren aldeko merkatu txikia antolatu du Amarotzeko auzo elkarteak Kultur Etxean. 16:00etatik 20:00etara zabalik (larunbatean 10:00etatik 14:00etara ere bai).

**Tolosa.** Samaniego ikastetxean Haur Hezkuntzako zentro berria, bioklimatikoa eta ekologikoa, erakusteko bisitaldi gidatuak izango dira.

**ERAKUSKETAK**

**Anoeta.** *Hondakinak: ametsgaiztorik ez!* erakusketa izango da kiroldegian Kultur Astearen baitan, 10:30etik 12:30era eta 15:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: egurgaldia Joxe Landarekin, HitzaZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.  
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Lehen geltokia, ipuinak

**ANOETA ▶** Atzo ekin zioten Kultur Asteari Pello Añorgak eskainitako ipuin kontaketa emanaldiarekin eta haur ugari bildu ziren liburutegian

IMANOL GARCIA

Ipuin kontaketaarekin hasi zen atzo Anoetako Kultur Astea. Pello Añorga kontalariaen saioak haur ugari erakarri zituen. Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailakoek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek zuten gonbitea. Lierni izeneko neskatxoaren abenturen berri izan zuten liburutegian bilduriko 25 haur inguruk. Ohi bezala, Añorgak maisutasunez eraman zituen haurrak irudimenaren mundura.



Pello Añorgaren emanaldira haur ugari bildu ziren. I. GARCIA

Astean zehar izango da zer egin eta zer ikusi. Gaur, esaterako, haurrek beste ekitaldi bat izango dute beraiantzat. Aerobik eta batuka egiteko aukera izango dute kiroldegian, 18:15ean hasita. Sarrera doan izango da.

Kultur Asteak eta Emakumearen Nazioarteko Egunak bat egingo dute. Horrela, bihar, izena eman dutenek tailer interesgarri bat egiteko aukera izango dute Ainhoa Iturberekin kiroldegian: *Gure gorputzarekin bat egiteko espazioa*.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Asier Lopetegi Saizar (Abaltzisketa). Gaur 5 urte. Zorionak etxekoan partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**

**hitza**  
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

**berriaren eskutik**

**PURRITX eta PORROTIX**

**txandalak**

Neurria	2	4	6	8
Adina	0-2	2-4	4-6	6-8
Haurraren luzera cmetan	80-90	98-104	110-116	122-128

**36€**

**Egin eskaria amaitu baino lehen**  
**943 304 345**  
 edo harpidedunek  
**www.berria.info**

OHARRA: biltegiokoak bukatu arteko eskaintza

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**